



## ARANTZako UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7  
31790 ARANTZA (Nafarroa)  
© 948 634 005  
udala@arantza.eus  
www.arantza.eus

---

### OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

---

**Organoa:** Udalbatza

**Deialdia:** Lehenengoa

**Bilera mota:** Arrunta

**Eguna:** 2023.10.30

**Ordua:** 18:00

**Tokia:** Herriko Etxeko areto nagusia

#### Bertaratuak:

- JARDUNEKO ALKATEA: Dabid Iturria Almandoz jn., EH Bildu.
- Markel Jorajuria Elizondo jn., EH Bildu.
- Imanol Lukanbio Larretxea jn., EH Bildu.
- Joseba Pikabea Iribarren jn., EH Bildu.
- Beñat Mitxelena Danboriena jn., EH Bildu.
- Leire Mitxelena Gamio and., EH Bildu

#### Bertaratu ez direnak:

- Eneko Sarrias Zoco jn., EH Bildu.

**Idazkaria:** Nagore Madariaga Iriarte

#### AZTERGAIAK:

1. Aurreko aktaren irakurketa eta, bidezkoa balitz, onespena.
2. Bake epaile titularraren izendapena.
3. Arantzako Baso-Suteen aurkako Udal Ekintza Plana onartzea
4. 5. poligonoko 420. lurzatiko hiri-jarduketarako plan berezia onartu aitzineko hirigintza-hitzarmenaren hasierako onespena.
5. Euskal Autonomia Erkidegoko euskaren erabilerari buruzko udal legearen inguruko adierazpen instituzionala.
6. Gazako gizateriaren aurkako krimenak gaitzesteko adierazpen instituzionala.
7. Azaroaren 25eko adierazpen instituzionala: "Ikusi duzu? Geldi ezazu?".
8. Alkate Ebazpenak.
9. Galderak eta eskaerak.

## **1. AURREKO AKTAREN IRAKURKETA ETA, BIDEZKOA BALITZ, ONESPENA.**

2023/09/19ko osoko bilkura arrunteko akta AHO BATEZ ONETSI da.

## **2. BAKE EPAILE TITULARRAREN IZENDAPENA..**

Idazkariak azaldu du 2023ko irailaren 25eko 129/2023 Alkate Ebazpen bidez Arantzako Bake Epaitetikoko epaile titularra hautatzeko prozedura abiarazi zela. Horrela bada, hautaketa prozeduraren hasierako onespeneraren iragarkia 2023ko urriaren 9ko 210. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan zen. Eskabideak aurkezteko epea iraganda, prozeduran parte hartzeko eskaera bakarra aurkeztu dela jakinarazi du idazkariak.

Interesatuak aurkezturiko eskaera aztertu da eta honek behar diren gaitasun eta bateragarritasun baldintzak betetzen dituela antzeman da.

Horrela bada, Epaileri buruzko ekainaren 7ko 3/1995 Erregelamenduaren 6. artikuluan xedatutakoari jarraiki, bake epaile titularra izendatzeko osoko bilkurak legezko kide kopuruaren gehiengo osoz hartutako akordio bidez egingen da.

Osoko bilkurak, informazioa adituta, aho batez, eskatzen den LEGEZKO KIDE KOPURUAREN GEHIENGO OSOA IZANIK, ERABAKI DU:

1.- Maria Esther Burlada Arocena Arantzako bake epaile titularra izendatzea, honako hauek izanik jakin beharreko datuak:

- Jaioteguna: 1969ko ekainaren 1ean.
- Jaioterrria: Arantza (Nafarroa).
- Aitaren izena: Tomás
- Amaren izena: M<sup>a</sup> Presentación
- N.A.N. zk.: 72669081Y
- Helbidea: Goiko karrika (Kaleko Etxea), 11º, 31790 Arantza (Nafarroa).
- Lanbidea: Ostalaria.

2.- Izendapen-erabakia interesdunari eta Nafarroako Auzitegi Nagusiari jakinaraztea, jakinaren gainean egon dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan.

## **3. ARANTZAKO BASO-SUTEEN AURKAKO UDAL EKINTZA PLANA ONARTZEA**

Idazkariak azaldu du Herrizaingo Saileko zuzendariaren otsailaren 22ko 35/2023 Ebazpenaren bidez, udalei dirulaguntzak emateko deialdia onetsi zela, 2023ko baso-suteen arriskuari aurre egiteko Udala Jarduera Plana egiteko.

Hau horrela izanik, Arantzako Udala aipaturiko dirulaguntzaren deialdira aurkeztu zen. Kontestu horretan, Basartea S.L. enpresak Arantzako Baso-Suteen aurkako Udala Ekintza Plana egin zuen non baso suteek jendea bizi den inguruneari nola eragin diezaiokeen aztertzen du eta kalteak ekiditeko irizpideak zehazten ditu.

Jarraiki, aipaturiko Baso-Suteen aurkako Udal Ekintza Planak 2023ko irailean Nafarroako Gobernuko Babes Zibileko eta Larrialdietako Zerbitzuaren aldeko txostena jaso zuen.

Horrela bada, idazkariak adierazi du Nafarroako Babes Zibilari eta Larrialdien kudeaketari buruzko uztailaren 1eko 8/2005 Foru Legeko 14.3. eta 12.4. artikuluetan xedaturikoaren arabera, Baso-Suteen aurkako Udal Ekintza Plana Arantzako Udaleko osoko bilkurak onartu beharra duela.

Osoko bilkurara bertaratutako kideek, informazioa adituta, AHO BATEZ ERABAKI DUTE:

1.- Basartea, S.L. enpresak idatzitako Arantzako Baso-Suteen aurkako Udal Ekintza Plana onartzea.

2.- Akordio hau, onartutako Arantzako Baso-Suteen aurkako Udal Ekintza Planarekin batera, Nafarroako Gobernuko Babes Zibileko eta Larrialdietako Zerbitzura helaraztea, beraien ezaguera eta ondorioetarako.

#### **4. 5. POLIGONOKO 420. LURZATIKO HIRI-JARDUKETARAKO PLAN BEREZIA ONARTU AITZINEKO HIRIGINTZA-HITZARMENAREN HASIERAKO ONESPENA.**

Ikusirik Arantzako Udaleko idazkariak prestaturiko planeamenduko hirigintza-hitzarmena, Jose Miguel Errandonea Ordokik sustaturiko 5. poligonoko 420. lurzatiko Hiri-Jarduketarako Plan Berezia onartzeari buruzkoa, eraiki nahi diren 4 etxebizitzetatik 2ren salmenta arautzeko.

Ikusirik Lurralde Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onartzen duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 23., 24. eta 26. artikuluetan, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 8.2 artikuluan eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.c) artikuluan xedaturikoa.

Osoko bilkurara bertaratutako kideek, informazioa adituta, AHO BATEZ ERABAKI DUTE:

1.- Hasierako onespena ematea Jose Miguel Errandonea Ordokik sustaturiko 5. poligonoko 420. lurzatiko Hiri-Jarduketarako Plan Berezia onartu aitzineko hirigintza-hitzarmenari.

2.- Jendaurrean jartzea aipatutako plangintzako hirigintza-hitzarmenaren proiektua hogeitun eguneko epean dagokion iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta udaleko iragarki-taulan argitaratzen denetik aitzin. Jendaurreko erakustaldian, edozein pertsonak aztertu ahal izanen du hirigintza-hitzarmenaren proiektu hori, eta egoki diren alegazioak egin ahal izanen dira.

3.- Akordio hau Jose Miguel Errandonea Ordoki sustatzaileari jakinaraztea, bere ezaguera eta ondorioetarako.

## **5. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO EUSKAREN ERABILERARI BURUZKO UDAL LEGEAREN INGURUKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA.**

### **UDALA ERE, EUSKARAREKIN BAT**

Udalerri euskaldunek, udalerri euskaldunetako udalek eta horien ordezkari garenok, hamaika arrazoi ditugu Euskalgintzaren Kontseiluak eta beste hainbat eragilek azaroaren 4rako Bilbon deitutako manifestazioarekin bat egiteko. Izan ere, gurean euskara ofiziala denetik dozenaka urte pasatu diren arren, udalerri euskaldunok hamaika urte daramatzagu gure ohiko jarduna mugatu eta oztopatu nahi duten epaiak pilatzen.

Uztailean, esaterako, Espainiako Auzitegi Konstituzionalak bertan behera utzi zuen Euskadiko Toki Erakundearen Legearen 6.2 artikulua. Arau horrek aukera ematen die Araba, Bizkai eta Gipuzkoako udalei erakunde barruko idatzizko dokumentuak erabat euskaraz egiteko, betiere hizkuntza-eskubideak urratu gabe. Eusko Legebiltzarrak 2016an onartu zuen legea, gehiengo zabalarekin, eta, zazpi urteren ondoren, Auzitegi Konstituzionalak bertan behera utzi du euskararen erabilerarekin lotutako atal nagusietako bat. Kolpe handia da udalerri euskaldunontzat, atzera egitera eta inolaz ere onartu ezin dugun lekura itzularazi nahi gaituztelako: bigarren mailako herritarrak izatera. Nafarroako udalerri euskaldunek, berriz, zailtasun handiak dituzte legeak eremu euskaldunetarako onartutako hainbat kontu eskubide osoz bideratzeko.

Epaiaren beraren larritasunaz harago, testuingurua ere esanguratsua da. Izan ere, argi dago azken hilabeteotakoak ez direla sententzia isolatuak, botere judizialek hizkuntza-politika aurrerakoiak mugatzeko eta herritarren hizkuntza-eskubideak murrizteko erabakiaren eta oldarraldiaren erakusle baizik. Ez da kasualitatea epai guztien oinarria: zein den: gaztekeraren nagusitasuna ezartzen dute eta, beraz, legeak aitortzen digun euskararen ofizialtasuna jartzen dute kolokan.

Zehatzago eta luzeago ere aritu gaitezke, baina udalei eta erakunde publikoari herritarren eredu izatea dagokigunez, aski dela esatera eta euskaldunon eskubideak defendatzera Bilbora joango garela adierazi nahi dugu udalerri euskaldunetako ordezkariak garen heinean, eta gurekin batera aldarria kalera ateratzeko eta azaroaren 4an Bilbora joateko deia egiten diegu herritarrei ere. Hizkuntza eskubideez ari gara, baina baita aniztasuna, herritarren arteko berdintasuna eta bizikidetzaren oinarri izango duten herriak zaintzeko beharraz ere. Beraz, oldarraldiaren aurrean, guk ere euskararekin bat egingo dugu azaroaren 4an.

## **6. GAZAKO GIZATERIAREN AURKAKO KRIMENAK GAITZESTEKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA.**

Arantzako Udaletik, Nakbatik, 1948an ehunka mila palestinar sarraskitu eta kanporatu zituztenetik, betikotzen ari den gatazka baten herritar zibilen eta indarkeriaren biktima guztien aurkako edozein eraso deitoratzen eta arbuizatzen hasi nahi dugu. Gatazka horren sustraiak munduko eremu horren banaketa kolonial europarrean daude, eta erantzunkizun handiena okupatzaileek, Israelek, sionismoak eta haien aliatuek, AEBk eta EBk dute, bertzeak bertze. Gatazka, gaur egun, mediatikoki gerra gisa onartu da, eta horrek ezin gaitu erratu bere izaera zeharo desorekatu eta neurrigabeari dagokionez. Palestina estatu israeldar, boteretsu eta kolonizatzailearen aldetik

imajina daitezkeen gerra krimen guztiak jasan izanaren lekuko izan da, benetako genozidioa eginez.

Palestinako herriak bere izateko eta existitzeko eskubide legitimoa aldarrikatzen jarraitzen du, nahiz eta Israelek Gazako zerrendan espetxeratzeko politika egin, harresiaren bertze aldean dagoen "erabateko segurtasun" irudipen baten ondoren. Ez okupazioak, ez behartutako desplazamenduak, ez apartheidak, ez garbiketa etnikoak ezin izan diote erresistentziari amaiera eman. Era berean, ezin izan dute beren duintasuna makurtu pilaketak, beren etxeen suntsipenak, atxiloketek, espetxeratzeak, gehiegikeriek, hilketek, blokeak eta oinarrizkoena gabetzeak. Hori guztia munduko segurtasunean eta armamentuan inbertsiorik handienarekin egin da, eta horrek gatazka areagotu baino ez du egin. Egoera honek 70 urte baino gehiago daramatza eta testigantzek eta zifrek baieztatzen dute, komunikabide handiek isiltzen duten arren. Argi eta garbi adierazi nahi dugu ez garela egoera honen normalizazioaren konplize izateko prest gauden pertsonak. Gauzak beren izenez deitu nahi ditugu eta, horrela, gatazkaren erroak identifikatu eta arduradun nagusiak seinalatu.

Gaur egun, gobernu israeldarrak harro aldarrikatzen ditu bere krimenak, bere ekintzak iragarri eta telebistan erakutsiz. Beren egintzak nazioarteko zuzenbidearen aurkakoak direla diote. Horren aitzinean, Arantzako Udalak elkartasuna adierazi nahi dio Palestinako herriari, existentzia hutsak erresistentzia erran nahi baitu. Enbargo militarra, boikota eta Israeli jarritako zigorrak babesten ditugu, Israelgo Gobernuak Palestinaren aurkako erasoak geldiaraztera, nazioarteko zuzenbide humanitarioa errespetatzera, Palestinako eta nazioarteko eragileekin hitz egitera eta NBEren ebazpenak errespetatzen hastera behartzeko neurri eraginkor gisa. Gainera, adierazi behar dugu konponbidea milizia koloniarren armagabetze eta desegitearen eta okupazioaren amaieraren ondoren bakarrik aurkitu ahal izanen dela. Bakea herri palestinarrarentzat askatasuna eta justizia lortzarekin baino ez da lortuko.

## **7. AZAROAREN 25EKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA: "IKUSI DUZU? GELDI EZAZU?".**

### **Ikusi duzu? Geldi ezazu!**

Duela 24 urte Nazio Batuen Batzarrak azaroaren 25a Emakumeen aurkako edozein indarkeria mota desagerrarazteko nazioarteko Eguna deklaratu zuen eta gaur, beste behin, indarkeria horren egiturazko izaera agerian jartzea beharrezkoa da. Indarkeria fisikoa, psikikoa, ekonomikoa, sexuala, feminizidioa, salerosketa, sexu-esplotazioa, mutilazio genitala, behartuta edo oso gaztetan egindako ezkontzak emakume eta neskek pairatzen duten indarkerien agerpen batzuk besterik ez dira. Giza eskubideen urraketa argia da, kausak sistema patriarkalean oinarritzen dituen, desberdintasunak betikitzen dituen eta mekanismo eta praktika sozial eta kulturalen bidez erreproduzitzen den botere egitura batean oinarritzen dena, emakumeen aurkako indarkeria ahalbidetuz eta normalizatuz.

2003tik, Espainian erregistro ofizialak daudenetik, bikotekideek edo bikotekide ohiek 1.236 emakume erail dituzte, 2,8 milioi neskek eta emakumek pairatu dute sexu-indarkeria bizitzako uneren batean, sexu-askatasunaren aurkako delituen biktimen % 84 emakumeak dira eta sexu-indarkeriako delitu horien arduradunak gizonak dira % 96an. Estatuko Fiskaltza Nagusiaren datuen

arabera, Nafarroan 2022an % 25 gehiago izan ziren sexu-askatasunaren aurkako auziak, eta % 94 gehiago sexu-erasoak. Era berean, 16 urtetik beherakoen aurkako sexu-erasoak % 166 igo ziren, aurreko urtearekin alderatuta.

Zifra horiek adierazten dute emakumeen aurkako indarkeria, eta zehazki sexu-indarkeria, gure gizarteko arlo guztietan dagoela, eta badakigu askotan ez direla salatzen eraso horiek. Indarkeria hori bikote-harremanetan, etxean, eremu digitaletan, kirolean, politikan, komunikabideetan, lan-esparruan, elkarteetan, aisialdiko guneetan, kaleetan... agertzen da, eta oinarri ditu, besteak beste jarrera matxisten normalizazioa, diskurtso negazionistak eta gizonen konplizitate edo axolagabekeria. Horiek denak emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna erdiesteko feminismoak lortutako aurrerapenekiko erresistentziak dira.

Emakumeen aurkako indarkeria jokamolde askoren normalizazioaren bidez betikotzen da. Egunero ikusi eta entzuten ditugu honelako komentarioetan: "orain ligatzeko kontratu bat sinatu behar da", "muxu bat besterik ez zen izan, ez da hainbesterako!", "ezin zaizue ezer ere esan, dena da iraingarria zuëndako!", etab. Horiek indarkeriarekin konplizeak diren diskurtso negazionisten adibide batzuk besterik ez dira, eta berdintasun erreal eta eraginkorra erdiesteko lanean jarraitzeko galdegiten digute, gizonek zeregin horretan duten inplikazioari bereziki eta zuzenean dei eginez. Beharrezkoa da denok konpromiso aktiboa hartzea, matxismoa betikotzen duten jokamolde normalizatuak, norberarenak edo besteenak, identifikatuz eta desagerraraziz. Bereziki saihestezina da gizonen aurrerapauso bat ematea eta egoera horiek betikotzen dituen konplizitatearekin amaitzea.

Horregatik guztiagatik, adierazpen hau bultzatzen dugun Tokiko Entitateek honako hau adierazten dugu:

- Gure arbuioa emakumeen aurkako indarkeria-mota ororekiko, edozein arlo eta testuingurutan.
- Gure konpromisoa, Administrazio Publiko garen aldetik, emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunak desagerrarazteko lanean jarraitzeko, bai eta tokiko entitateen agenda politikoan emakume eta neskatuen indarkeriarik gabeko bizitza bizitzeko eskubidea bermatzen duten neurriak txertatzeko ere, emakumeen kolektiboekin eta kolektibo feministekin eta herritarrekin elkarlanean.
- Gure ardura, emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean koordinatuta jokatzeko tokiko protokoloak bermatzeko, sentsibilizazioaren, prebentzioaren, arretaren, esku-hartzearen eta erreparazioaren arloetan lan iraunkorra eginez.
- Gure konpromisoa erasotutako edo eraildako emakume eta neskatuekin, baita horien seme-alabekin ere, sexu-indarkeriari aurre egin behar izan baitiete.
- Gure interpelazio zuzena adin guztietako gizonen, konpromisoak har ditzaten eta emakumeen aurkako indarkeria mota guztien aurka aktiboki ager daitezen.
- Gure deia eta aitorpena herritarrei, emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko bidean haien arbuioa eta konpromisoa adierazten jarrai dezaten, indarkeria horren agerpen guztiak salatzen, haren oinarri diren eta emakumeen eta nesken bizitza eta askatasuna baldintzatzen duten jarrerak agertaraziz eta herritarrak gonbidatzea azaroaren 25aren inguruan antolatzen diren jardueren guztietan parte hartzea.

## 8. ALKATEAREN EBAZPENAK.


122/2023tik 151/2023ra Alkate Ebazpenak azaldu eta AHO BATEZ BERRETSI EGIN DIRA.

## 9. ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez dira egiten.

Bertze aztergairik izan gabe, 19:10ak direnean, jarduneko alkateak bilera bukatutzat eman du, eta nik, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.

**JARDUNEKO ALKATEA,**



Dabid Iturria Almandoz



**Ziurtatzen dut  
IDAZKARIA,**



Nagore Madariaga Iriarte

